

OSAKIDETZAREN LANBIDE- GARAPENEKO OHIKO DEIALDIA

2025EKO ETA BERRIZ IREKITAKO 2022, 2023 ETA 2024KO
EKITALDIETAKO DEIALDIAK OHIKO GALDERAK ONARTUEN ETA
BAZTERTUEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAN

Osakidetza

1.B

2025KO ETA BERRIZ IREKITAKO 2022, 2023 ETA 2024KO OSAKIDETZAREN LANBIDE-GARAPENeko EKITALDIETAKO DEIALDIAK (2081/2025 EBAZPENa)

OHIKO GALDERAK ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAN (504/2026 EBAZPENa)

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA.....	1
1. GAI OROKORRAK.....	2
2. ERREKLAMAZIOAREN ARRAZOIA.....	7
3. HURRENGO URRATSAK.....	10

1. GAI OROKORRAK

1. EZ NAGO ADOS DEIALDIAN ONARTUTAKO ETA BAZTERTUTAKO PERTSONEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAREKIN. NOLA EGIN DEZAKET ERREKLAMAZIOA?

Lanbide Garapeneko aplikazio informatikora sartu behar duzu (<https://lanbidegarapena.osakidetza.eus>), Intranetetik edo Osakidetzaren webgunetik. -Behin aplikazio informatikoan sartuta, erabiltzaileek bi sarbide mota izango dituzte:

- **Pertsonak - Osakidetzako profesionalak:** NANaren eta Norbideko pasahitzaren bidez (Osakidetzako sistemetara sartzeko erabiltzen diren berberak).
- **Osakidetzako profesionalak eta profesional ohiak:** IZENPERen bidez (Euskadiko identifikazio elektronikoa), BakQ, ziurtagiri digitalak edo CI@ve erabilia.

2. ZEIN DA ESKAERA EGITEKO EPEA?

Lanbide Garapeneko deialdi arrunt honetan onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrendari buruzko erreklamazioa egiteko epea **2026ko martxoaren 12tik 26ra bitartekoa da**.

3. NIRE LANBIDE-TALDEAN ZERBITZUAK EMAN DITUT BAINA BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA HORRETAN BAZTERTUTAKO PERTSONEN ZERRENDAN AGERTZEN NAIZ. NOLATAN?

Kontuan izan zure lanbide-taldean emandako zerbitzuak betetzea ezinbesteko baldintza dela baina ez dela nahikoa Lanbide Garapeneko ohiko deialdi honetan parte hartu ahal izateko.

Lehenik eta behin, eskabideak aurkezteko epean deialdiaren **aplikazio-eremuaren barruan** egon behar du. Horretarako, eskaera-epean, aktibo egon behar duzu, edo eszedentzia-egoeran (senideak zaintzekoa, genero-indarkeriagatikoa edo zerbitzu berezietakoa), 2081/2025 Ebazpenaren 2. artikulua araberakoa.

Ondoren, aipatutako ebazpenaren 3. artikuluan ezarritako **sistema sartzeko baldintzak bete** behar dituzu: (1) aukeratutako garapen-mailarako eskatzen diren zerbitzu-urteak izatea sarbidea ematen duen lanbide-taldean eta, langile ez-finkoen kasuan, (2) eskaera aurkezteko epa hasi aurreko azken 5 urteetan Osakidetzan 3 urtez zerbitzuak benetan eman izana eskatuko da.

Nolanahi ere, baztertutako pertsonen zerrendan agertzen da deialdian parte hartzea eskatu zuen profesional bakoitza zergatik baztertu den.

4. LANBIDE-GARAPENEN AURREKO DEIALDIAN EBALUAZIO NEGATIBOA LORTZEAGATIK BAZTERTU NAUTELA EGIAZTATZEN DUT EBAZPENEAN. NOIZ HAR DEZAKET PARTE BERRIRO?

2022ko ekitaldiari dagokion ekainaren 19ko 1184/2023 Ebazpenak araututako **deialdian ebaluazio negatiboa jaso zutenek edo 2023ko** ekitaldiari dagokion abenduaren 29ko 2425/2023 Ebazpenak araututako **deialdian ebaluazio negatiboa jaso zutenek** ezin dute 2024ko ekitaldiko deialdian parte hartu, eta, beraz, deialditik kanpo geratu dira. Indarrean dagoen araudiaren arabera, maiatzaren 10eko 956/2024 Ebazpenaren bidez ebaluazio negatiboa lortu duten pertsonak edo azaroaren 11ko 1523/2024 Ebazpenaren bidez ebaluazio negatiboa lortu duten pertsonak **ezin izango dute hurrengo deialdietan parte hartu bi urte igaro arte**, hau da, 2026ko maiatzaren 21era arte edo 2026ko azaroaren 22ra, hurrenez hurren, Lanbide Sanitarioen Antolamenduari buruzko azaroaren 21eko 44/2003 Legearen 38. artikulua lehen puntuaren c letran adierazten den bezala.

5. 2024KO EKITALDIKO DEIALDIAN LORTU NAHI NUEN GARAPEN-MAILA AITORTU DIDATE, BAINA 2025EKO DEIALDI HONETAN BAZTERTU NAUTELA IKUSTEN DUT. ZERGATIK?

984/2025 Ebazpenaren bidez, 2024ko ekitaldiari zegokion deialdian lortu nahi zenuen garapen-maila aitortu badizute, ziur asko orain 2025eko deialdian baztertu zaituzte **ez dituzulako betetzen hurrengo garapen-mailara iristeko eskatzen diren zerbitzu-urteak**, Osasun Lanbideen Antolamenduari buruzko azaroaren 21eko 44/2003 Legearen 38. artikulua lehen puntuko c letran adierazten den bezala. Lanbide-garapeneko aplikazioan egiazta dezakezu baztertu izanaren arrazoia. Kontuan izan 2024ko ekitaldiko deialdian zure lanbide-taldeko II. aintzatespen-maila lortu baduzu, 2025eko ekitaldiko deialdian 18 urteko zerbitzua behar duzula talde berean III. maila lortu ahal izateko. 18 urte horiek ez izatea da baztertua izatearen arrazoia. Dena den, gogoan izan **deialditik kanpo geratzea ez dela ebaluazio negatiboa jasotzea**, eta, beraz, lanbide-garapeneko hurrengo deialdietan parte hartu ahal izango duzula.

6. 2024KO EKITALDIKO DEIALDIAN LORTU NAHI NUEN GARAPEN-MAILA AITORTU DIDATE ETA HURRENGO MAILARA IRISTEKO ESKATZEN DIREN ZERBITZU-URTEAK DITUT, HALA ERE, 2025EKO DEIALDIAN BAZTERTU NAUTE. ZERGATIK?

Lanbide Sanitarioen Antolamenduari buruzko 44/2003 Legearen arabera, **ezin da lanbide-garapeneko maila jakin bat eskatu aurreko ebaluazio positibotik ezarritako epea igaro arte** eta 5 urte baino gutxiago inoiz ez. Gogoratu: II. maila lortzeko, 6 urte eman behar dituzu aurreko mailan, eta III. eta IV. mailatarako, 7 urte. Adibidez, 2023ko ekitaldiko deialdian II. maila aitortu bazitzaizun, maila horretan 7 urte eman beharko dituzu III. maila aitortzeko eskatu ahal izan arte.

7. DAGOENEO ERREKLAMAZIO BAT AURKEZTU DUT LANBIDE GARAPENEO APLIKAZIO INFORMATIKOAREN BIDEZ, BAINA BESTE BAT AURKEZTU NAHI DUT.

Lanbide Garapeneko aplikazio informatikoak **erreklamazio bakarra egiteko aukera ematen du parte-hartzaile bakoitzarentzat**. Erreklamazioa egiteko epean bazaude, oraindik bidali ez baduzu eta "Zirriborro" egoeran gordeta baduzu, aldaketak egin ditzakezu erreklamazioan, baita dokumentu berriak gehitu ere. Baina lehenengo erreklamazio bat bidali baduzu, ezin duzu beste bat aurkeztu aplikazio informatikoaren bidez.

8. LANBIDE GARAPENEO APLIKAZIO INFORMATIKOAN ERREKLAMAZIOA BETE DUT, BAINA EZ DIT BIDALTZEN UTZI.

Ziurtatu erreklamazioaren atal guztiak bete dituzula. Kontuan izan erreklamazioari nahitaez atxiki behar diozula erreklamazioaren arrazoa **egiaztatzen duen dokumentazioa**.

9. IKUSTEN DUT EZIN DUDALA ERREKLAMAZIOA BIDALI, EGIAZTAGIRIAK ERANTSI EZEAN. ZER ERANTSI BEHAR DUT?

Erreklamazio guztiekin batera, erreklamazioan egiten dituzun **alegazioak justifikatzeko agiriak aurkeztu behar dituzu**. Dokumentazio hori, ahal dela, formatu elektronikoko dokumentuek edo eskaneatutako dokumentuek osatuko dute, edo, bestela, dokumentu horien argazkiek edo pantaila-argazkiek. Kontuan izan erreklamazio berean dokumentu bat baino gehiago erants ditzakezula, gehienez ere 2MB.

10. DEIALDI HONETAN IZENA EMAN NUENEAN, EZ NEKIEN OSO ZIUR HURRENGO GARAPEN-MAILA LORTZEKO ESKATUTAKO ZERBITZU-URTEAK BETETZEN NITUEN ALA EZ, ETA, ORAIN, ARRAZOI HORRENGATIK BAZTERTUTAKO PERTSONEN ZERRENDAN AGERTZEN NAIZELA IKUSTEN DUT. ENTZUN NUEN KASU HONETAN EZIN IZANGO NAIZELA BERRIRO AURKEZTU BI URTETAN LANBIDE-GARAPENEO BESTE DEIALDI BATERA. HALA DA?

Ez. Baztertutako pertsonak ez daude deialdi honen aplikazio-eremuan (2081/2025 Ebazpenaren 2. artikulua) edo ez dituzte betetzen bertan ezarritako baldintza guztiak (2081/2025 Ebazpenaren 3. artikulua). Horren ondorioz, ezin dute deialdi honetan parte hartu lanbide-garapenaren mailan, baina **ez dago eragozpenik hurrengo deialdietan aurkezteko**, baldin eta aplikazio-eremuan badaude eta horretarako ezarritako baldintza guztiak betetzen badituzte.

Bestalde, deialdian onartutako pertsonen artean prozesuaren amaieran **ebaluazio negatiboa** jasotzen dutenek ezin izango dute beste ebaluazio bat eskatu, mailen behin betiko esleipenaren ebazpenetik bi urte igaro arte. Ebaluazio negatiboa (395/2005, 35/2007 eta 248/2007 Dekretuen

11.4 artikulua) gertatzen da onartutako pertsonak **ez duenean lortzen** bere lanbide-taldearen arabera ebaluazio-**bloke bakoitzerako** (A, B eta C blokeak) **ezarritako gutxieneko puntuazioa**.

11. NOIZ ETA NOLA JAKINGO DUT NIRE ERREKLAMAZIOA BAIETSI DEN?

Erreklamazioak aurkezteko epea amaituta, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariak **beste ebazpen bat** emango du **onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzeko**. Ebazpen hori Osakidetzaren webgunean argitaratuko da.

Zure erreklamazioa baietsi bada eta behin-behineko zerrendan baztertutako pertsonen zerrendan bazeuden, behin betiko zerrendan ikusiko duzu onartutakoen zerrendan agertzen zarela. Onartutako pertsonen behin-behineko zerrendan bazeuden baina zure erreklamazioa garapen-mailari edo lanbide-taldeari buruzkoa bazen, zure erreklamazioa baiesten bada, aldaketa horiek egingo dira onartuen behin betiko zerrendan. Bestalde, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendan erreklamazioan eskatutako aldaketarik gertatzen ez bada, horrek esan nahi du zure erreklamazioa ez dela baietsi. Gainera, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzen duen Ebazpena argitaratzen denean, Lanbide Garapeneko **aplikazio informatikoan** berriro sartu ahal izango zara zure erreklamaziora, eta jaso duzun erantzun espezifikoa ikusi ahal izango duzu.

12. HAINBAT ARRAZOI DIRELA MEDIO, EZIN IZAN DUT EPE BARRUAN EGIN LANBIDE-GARAPENAREN OHIKO DEIALDI HONETAN PARTE HARTZEKO ESKAERA. ORAIN ERREKLAMAZIO BAT EGIN NAHI DUT NIRE EGOERA AZALTZEKO, ETA EGIAZTATZEN DUT EZEN, LANBIDE-GARAPENAREN APLIKAZIO INFORMATIKOAN SARTZEN BANAIZ ERE, APLIKAZIO HORREK EZ DIDALA AUKERARIK EMATEN ERREKLAMAZIOA HANDIK EGITEKO. ZER EGIN BEHAR DUT?

Hain zuzen ere, lanbide-garapenaren aplikazio informatikoak erreklamazioak egiteko aukera ematen die soilik ezarritako epean ezohiko deialdian parte hartzeko eskaera egin zutenei. Kasu horretan, sartu aplikazio informatikoan eta sakatu "*Lanbide-garapenari buruzko informazioa 1*" botoia. Esteka horrek Osakidetzako Intraneteko Lanbide-garapenaren ohiko deialdira eramango zaitu. Intraneteko atal horretara zuzenean ere joan zaitezke, lanbide-garapenaren aplikaziotik igaro gabe. Intranetean zaudela, orriaren amaieran "*Formularioa*" izeneko botoi berri bat aurkituko duzu. Sakatu botoi hori, eta, Captcha kodearen proba pasa ondoren, **Lanbide-garapenari buruzko kontsultak egiteko formularioa** agertuko zaizu. Bete eskatutako eremuak, eta "*Arazoaren deskribapena*" atalean, idatzi erreklamazioa bera. Ondoren, sakatu "*Bidali*" botoia. Hala ere, kontuan izan, lanbide-garapenaren eskaera aurkeztea borondatezkoa izanik (abenduaren 19ko 2081/2025 Ebazpenaren 2. artikulua), garapen-maila aitortzeko prozesuan onartua izateko beharrezkoa dela eskaera ezarritako epean eta moduan aurkeztu izana (abenduaren 19ko 2081/2023 Ebazpenaren 4. artikulua).

13. ONARTUTAKOEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAN NAGOEN ARREN, NIRE ESKAERAN ATZERA EGIN NAHI DUT. ZER URRATS EMAN BEHAR DUT?

Atzera egin nahi baduzu, **sartu lanbide-garapeneko aplikazio informatikoan** eta aurkitu deialdi honetarako egin zenuen eskaera. Bertan, joan "*Izena ematea*" fitxara eta, eskaeraren abisuaren azpian, **botoi gorri bat aurkituko duzu, "Atzera egitea"** izenarekin (ikusi hurrengo pantaila-irudia). Sakatu, eta, ondoren, berretsi zure erabakia. Osakidetzak automatikoki onartuko du atzera egitea. Atzera egitea eskatu izanaren **frogagiria** deskarga dezakezu, halaber.

2. ERREKLAMAZIOAREN ARRAZOIA

14. ZEIN DA ERREKLAMAZIOAREN ARRAZOIA?

Erreklamazioaren arrazoia onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendaren fase honetan aplikazio informatikoaren bidez aurkezten den Lanbide Garapeneko edozein erreklamazioaren **osagai** bat da. Goitibeherako menuan, **erreklamazioaren arrazoia hobekien deskribatzen duen elementua** aukeratu behar da. Erreklamazioaren arrazoiari esker, errazago aztertzen, berrikusten eta tratatzen dira erreklamazioak eta horrek prozesua zorrotzagoa eta azkarragoa izatea dakar.

Funtsean, **hiru erreklamazio-arrazoi** daude:

- **Baztertze**ko arrazoia: "*Baztertutako pertsonen zerrendan agertzen naiz eta ez nago ados baztertze*ko arrazoiarekin".
- **Garapen**-maila: "*Onartutakoen zerrendan agertzen naiz, baina ez nago ados garapen*-mailarekin".
- **Lanbide**-taldea: "*Onartutakoen zerrendan agertzen naiz, baina ez nago ados lanbide*-taldearekin".

Laugarren erreklamazio-arrazoi bat ere badago, "*Beste batzuk*" izenekoa, aurreko hiru arrazoietatik kanpoko kasuetarako.

15. BAZTERTUEN ZERRENDAN AGERTZEN NAIZ, BAINA ONARTUEN ZERRENDAN AGERTU BEHARKO NINTZATEKE. ZER ERREKLAMAZIO-ARRAZOI AUKERATU BEHAR DUT?

Onartutakoen zerrendan agertu beharko zenukeela uste baduzu, "**Baztertuen zerrendan agertzen naiz eta ez nago ados baztertze**ko arrazoiarekin" arrazoia aukeratu behar duzu. Erreklamazioaren testuan erreklamazioaren xehetasunak adierazi behar dituzu, egokitzat jotzen dituzun alderdiak adieraziz, baita dagozkion egiaztagiria erantsi ere. Ohiko deialdian izena eman dut, baina aplikazio informatikoak ez dit aukerarik ematen nire garapen-maila egiaztatze

16. NIRE KASUAN, ZERRENDATIK KANPO UZTEKO ARRAZOIA HONAKO HAU DA: "*EZ DAGO DEIALDIAREN APLIKAZIO-EREMUAN*". ZER ESAN NAHI DU?

Arrazoi horrengatik baztertutako pertsonak dira **eskabideak aurkezteko epean 2081/2025 Ebazpenaren 2. artikuluan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez zutenak**. Hau da, arrazoi horrengatik baztertutako pertsonen egoera ez zen hauetako bat: aktibo, edo senideak zaintzeko eszedentzia, genero-indarkeriagatikoa, edo zerbitzu berezietan. Adibidez, sektore publikoan zerbitzuak emateagatik eszedentzian dauden pertsonak ez daude deialdiaren aplikazio-eremuan sartuta, eta, ondorioz, baztertutako pertsonen zerrendan agertzen dira.

17. AKTIBO NAGO ETA 2081/2025 EBAZPENEAN EZARRITAKO BALDINTZA GUZTIAK BETETZEN DITUT. ARE GEHIAGO, 25 URTE BAINO GEHIAGO EMAN DITUT LANEAN, ETA LANBIDE GARAPENeko IV. MAILA AITORTUTA DAUKAT. DEIALDI HONETAN ZERGATIK NAGO BAZTERTUTAKO PERTSONEN ZERRENDAN?

Baztertuta zaude dagoeneko lortu duzulako Lanbide Garapeneko **maila gorena aurreko deialdi batean** (ez dago IV. mailatik gorako mailarik). Kontuan izan aitortutako garapen-mailak finkatuta daudela, hau da, ez direla "galtzen" eta ez dela beharrezkoa berriro egiaztatzea hurrengo deialdietan.

18. AKTIBO NAGO ETA 5 URTETIK GORAKO ESPERIENTZIA DUT NIRE LANBIDE-KATEGORIAN, OSAKIDETZAN ETA BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKO BATZUETAN EMANDAKO ZERBITZUAK KONTUAN HARTUTA. HALA ERE, BAZTERTUTAKO PERTSONEN ZERRENDAN AGERTZEN NAIZ, ETA BAZTERTZEKO ARRAZOIA HONAKO HAU DA: "KATEGORIAN 5 URTEZ LAN EGIN EZ IZANA". ZERGATIK DAGO BAZTERTUTA ETA EZ DUT LANBIDE GARAPENeko I. MAILA LORTZEKO AUKERA?

2081/2025 Ebazpenaren 3. artikulua arabera, 5 urte bete behar dira kasuan kasuko lanbide-kategorian Osakidetzan, Osasun Sistema Nazionalean edo Europar Batasuneko estatu kideei dagozkien Osasun Sistemetan **antolamenduz eta funtzionalki integratutako erakunde sanitarioetan**. Beste administrazio publiko batzuetan kategoria berean egindako zerbitzuak %50 zenbatzen dira.

Ondorioz, kategorian 5 urte ez betetzeagatik baztertuta zaude, garapen profesionalaren ondorioetarako, Osakidetzan, Osasun Sistema Nazionalean edo Europar Batasuneko estatu kideei dagozkien Osasun Sistemetan emandako zerbitzuak hartuta, eta beste administrazio publiko batzuetan sartzeko lanbide-talde berean emandako zerbitzuen % 50 ez direlako iristen I. mailan sartzeko eskatutako 5 urtera.

19. NIRE KASUAN, ONARTUEN ZERRENDAN NAGO, BAINA NIRE USTEZ ZERRENDAN ADIERAZTEN DENA EZ DEN GARAPEN-MAILA BAT LORTZEA DAGOKIT.

Kontuan izan ohiko deialdi honetan **jadanik aitortuta daukazuaren hurrengo garapen-maila aitortzeko bakarrik** eska dezakezula, lehenagotik mailaren bat aitortuta baduzu, **edo I. maila** aitortzeko, baldin eta aintzatespena lortu nahi duzun lanbide-taldean ez baduzu mailarik aitortuta.

Nolanahi ere, erreklamazio bat egin dezakezu Lanbide Garapeneko aplikazio informatikoan, eta "Arrazoi" gisa honako hau aukeratu: *"Onartutako pertsonen zerrendan agertzen naiz, baina ez nago ados garapen-mailarekin"*. Erreklamazioaren xehetasunak adierazi behar dituzu, egokitzat jotzen dituzun alderdiak adieraziz, baita dagozkion egiaztatgiriak erantsi ere.

20. ONARTUTAKOEN ZERRENDAN NAGO, USTE DUT LANBIDE-TALDEA EZ DELA ZUZENA.

Gainerako kasuetan bezala, "Arrazoi" aukeratuz egin dezakezu erreklamazioa Lanbide Garapeneko aplikazio informatikoan; kasu honetan, *"Onartutako en zerrendan agertzen naiz, baina ez nago ados lanbide-taldearekin"*. Erreklamazioaren xehetasunak adierazi behar dituzu, egokitzat jotzen dituzun alderdiak adieraziz, baita dagozkion egiaztatgiriak erantsi ere.

Kontuan izan, alde horretatik, ezin dela hautatu garapen-maila zein lanbide-taldetik eskatzen den. Langile finkoek **jabetzako lanpostua duten lanbide-taldetik** eskatu behar dute garapen-maila. Aldi baterako barne-sustapenean edo goragoko kategoriako eginkizunen modalitatean egindako zerbitzuak, lanbide-garapenaren ondorioetarako, titular den lanbide-taldean zenbatuko dira. Bestalde, langile ez-finkoek eskabideak aurkezteko epean **jardunean ari diren lanbide-taldetik** eskatu behar dute **garapen-maila**.

3. HURRENGO URRATSAK

21. ONARTUEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAN AGERTZEN NAIZ, ETA BERTAN ADIERAZTEN DA ZEIN GARAPEN-MAILATARAKO ETA LANBIDE-TALDEETARAKO ESKATU DUDAN AINTZATESPENA. BEHIN BETIKO ZERRENDA ARGITARATZEN DENEAN, ZEIN IZANGO DA DEIALDIAREN HURRENGO FASEA?

Onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda onartzen duen ebazpena argitaratu ondoren, **autoebaluazio-fasea irekiko da**. Fase horretan, onartuek beren **Ebaluaziorako Ekarpenen Fitxa** aurkeztu ahal izango dute, Lanbide Garapeneko aplikazio informatikoaren bidez, ezartzen den epean.

Fitxa horrek biltzen ditu **B blokeko curriculum-merezimenduen** alegazioa (Prestakuntza, Irakaskuntza/Ezagutzaren Hedapena eta Ikerketa/Berrikuntza) **eta C blokeko edukiak** (Inplikazioa eta Konpromisoa), eta, horrela, faktore eta item desberdinetan ebaluaziorako informazio garrantzitsua ematen du, baita Zerbitzuaren/Atalaren/Unitatearen **helburuei egindako ekarpenen** deskribapena eta lortu nahi den garapen-mailaren iraunaldiako **jokabide eta jardura profesionalak** ere.

22. ORDUAN, NAHIZ ETA NIRE IZENA ONARTUTAKOEN ZERRENDAN AGERTU ETA LORTU NAHI DUDAN GARAPEN-MAILA ADIERAZTEN DIDATEN, HORREK EZ DU ESAN NAHI GARAPEN-MAILA HORI AUTOMATIKOKI AITORTUKO DIDATENIK, EZTA?

Hori da. Kasuan kasuko lanbide-taldetik eskaera eginda, garapen-maila prozesuaren amaieran aitortzen zaie onartutako pertsoneri, A, B eta C blokeetan artikulatutako ebaluazio-faktoreak ebaluatu ondoren. Lortu nahi den lanbide-garapeneko maila aitortzeko, beharrezkoa da **ebaluazioa gainditzea eta puntuazio jakin bat lortzea bloke bakoitzean**.